

7.776

1.095/2006 ERABAKIA, abenduaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Aiara udalerriko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren peko lurzoruaren eta hiri ondasun higiezinaren balioeste txostenaren eranskina behin betiko onartzen da, Maroñoko urtegiaren ohea, lehen aipatutako udalerrian dagoen zatia, balioesteko irizpideak barne.

Azaroaren 15eko 601/2006 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko izaeraz onartu zen Aiara udalerriko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren pean dauden hiri ondasun higiezinaren Lurzorua eta Eraikuntzak Balioesteko Txostena, Maroñoko urtegiaren ohea, lehen aipatutako udalerrian dagoen zatia, balioesteko irizpideak barne.

Aipatutako arauaren 2. artikuluan, Aiarako Udalari haren berri emateko agindua eman zen. Agindu hori 2006ko azaroaren 15ean bete zen eta udalak 2006ko azaroaren 15ean jaso zuen jakinarazpena.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 11. artikuluan 4. paragrafoan hamabost egun ematen dizkio udalari egoki deritzona jakinaraz dezan.

Aiarako Udalak 2006ko azaroaren 27an balioeste txostenaren eranskinean jasotako balioekin ados dagoela adierazten duen oharra bidali zuen.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honakoa

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren peko lurzoruaren eta hiri ondasun higiezinaren Balioeste-txostenaren —Aiarako udalerrirako egindakoa— eranskina behin betiko onartzea, Maroñoko urtegiaren ohea, lehen aipatutako udalerrian dagoen zatia, balioesteko irizpideak barne.

Bigarren.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea. Txostena zabaltzea Aiarako Udalari dago-kio, eta horretarako dagozkion ediktuk argitarako ditu, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak 11. artikuluan 6. paragrafoan eta hori garatzeko abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren 1080/1992 Foru Dekretuak 15. artikuluan ezartzen dutenarekin bat etorritz.

Hirugarren.- Balioen txostenaren aldaketa argitaratu ondoren, ateratzen diren katastro-balioak banan-banan jakinaraziko zaizkio subjektu pasibo bakoitzari, balioak indarrean sartu aurre-aurreko urtea amaitu baino lehen, horixe agintzen baitu abenduaren 15eko Diputatuen Kontseiluak Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak garatzeko eman zuen 1080/1992 Foru Dekretuak 17. artikuluan.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 5a.- Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOB A. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Aiarako Balioeste Txostenaren eranskina

Aiara udalerriko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren pean dauden hiri ondasun higiezinaren Lurzorua eta Eraikuntzak Balioesteko txostena irailaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren 711/2003 Erabakiaren bidez onartu zen.

Balioeste txostenaren eranskina edo txosten osagarria Maroñoko urtegiaren ohea, Aiaran dagoen zatia, batzeko egin da, kontuan harturik berorren azalera gehieneko mailakoa izango dela. Horretarako, Aiara udalerriko lurra eta eraikuntzak balioesteko txostenaren 101 zenbakiko zerga poligonoa esleitzen da; bertara, Maroñoko urtegiaren ohearen metro koadroen katastro balioa bilduko da.

Zerga poligono horri esleitutako balioa eta urtegiaren ohearen katastro balioaren kalkulua ez dator bat lurra eta eraikuntzak ba-

7.776

ACUERDO 1.095/2006, del Consejo de Diputados de 5 de diciembre, que aprueba definitivamente el Anexo de la Ponencia de Valoración del suelo y construcciones de los bienes inmuebles urbanos sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Ayala, incluyendo los criterios valorativos del lecho del embalse de Maroño, en la parte situada en el citado término municipal.

Por Orden Foral número 601/2006, de 15 de noviembre, se aprobó con carácter provisional, el Anexo de la Ponencia de Valoración de Suelo y Construcciones de los bienes inmuebles de naturaleza urbana sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles del término municipal de Ayala, incluyendo en la misma los criterios valorativos del lecho del embalse de Maroño, en la parte situada en el citado término municipal.

En el artículo 2º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Ayala, disposición que se realizó con fecha 15 de noviembre de 2006, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Ayala, en la misma fecha 15 de noviembre de 2006.

La Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.

Con fecha 27 de noviembre de 2006, el Ayuntamiento de Ayala ha remitido una comunicación manifestando su conformidad con los valores expuestos en el documento del Anexo de la Ponencia de Valoración.

En su virtud, a propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- Aprobar definitivamente el Anexo de la Ponencia de Valoración del suelo y construcciones de los bienes inmuebles urbanos sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, realizada para el término municipal de Ayala, incluyendo en la misma los criterios valorativos del lecho del embalse de Maroño, en la parte situada en el citado término municipal.

Segundo.- El presente Acuerdo será publicado en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, correspondiendo al Ayuntamiento de Ayala dar la debida publicidad al mismo, medianamente la publicación de los correspondientes edictos, tal y como establecen por un lado el artículo 11 apartado 6º de la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, como su posterior desarrollo reglamentario Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre, en su artículo 15.

Tercero.- A partir de la publicación de la modificación de la Ponencia de Valoración, los valores catastrales resultantes deberán ser notificados individualmente a cada sujeto pasivo antes de la finalización del año inmediatamente anterior a aquel en que deban surtir efecto los mismos, de conformidad con lo establecido en el Decreto Foral número 1080/1992, del Consejo de Diputados de 15 de diciembre en su artículo 17 y que sirve de desarrollo reglamentario a la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

En Vitoria-Gasteiz, 5 de diciembre de 2006.- Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOB A. Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Anexo a la Ponencia de Valores de Ayala

La Ponencia de Valoración de Suelo y Construcciones de bienes inmuebles urbanos sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, fue aprobada para el término municipal de Ayala por Acuerdo número 711/2003, del Consejo de Diputados de 9 de setiembre.

El Anexo a la Ponencia de Valoración existente o Ponencia Complementaria, se realiza al objeto de incluir en la misma el lecho del embalse de Maroño situado en el mencionado término municipal, teniendo en cuenta que se tomará como superficie, la que se ocupe en el momento de máximo nivel. Para ello, se asigna el Polígono Fiscal número 101 de la Ponencia de Valoración del suelo y construcciones del término municipal de Ayala que contendrá el valor catastral por metro cuadrado del lecho del embalse de Maroño.

El valor asignado a este Polígono Fiscal y el cálculo del valor catastral del lecho del embalse, no responden al cálculo general es-

lioesteko txostenean ezarritako kalkulu orokorrarekin, baloratu behar den hiri elementuaren berezitasunagatik, ez baitago baliokidetza koadroan, beraz, –lurzoruaren eta eraikuntzen balioen balioeste arau teknikoak eta taula markoa onartzeko Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 18ko 2/1994 Foru Dekretuaren 3. artikuluan xedatu legez– hiri ondasunen katastro balioa zehazteko, noiz eta ondasunon ezau-garri bereziek eragotzen dutenean balorazio masiboaren bidezko balorazioa, beharrezkoa izango da balioeste txostenean elementu ba-koitzaren prozedura berezia zehaztea, hau da, zehaztu beharko da zein higiezin aplika dakiokkeen prozedura hori.

Lehen azaldutako arrazoari jarraituta, balorazio berezia, Maroñoko urtegiaren ohearen kasuan, higiezin merkatutik kanpoko datuetan oinarritu beharko da, hots, beste prozedura batzuetan lortutako datuetan, higiezin merkatura heltzen ez diren ondasun higiezinak baitira. Datuek (datu horiei esker aipatutako ondasun higiezinaren katastroko balioa lotzen da) Arabako Foru Aldundiak berak egindako desjabetze prozesuetan dute iturri, hain zuzen ere, lurrak lortzeko egin ziren desjabetze prozesuetan; lurrotan egun balioetsi nahi den era-ko lanak egin ziren, urtegi bat egiteko lanak, alegia.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzeko uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 7. artikuluko 1. paragrafoan xedatu legez, hiri ondasun higiezinaren katastro balioa lurzoruaren eta eraikuntzen balioa izango da.

MAROÑOKO URTEGIAREN OHEAREN KATASTRO BALORAZIO BEREZIA

Lurzoruaren balioa.- Lurzoruaren katastro balioa lortzeko, aurreikusitako goreneko mailan urtegiarekin okupatutako azalera oso-ari Aiara udalerriko balioeste txostenaren eranskin honetan eratzikitako balioa aplikatu behar zaio. Eratzikitako balioa ondokoa da:

ZERGA POLIGONOA	URTEGIA	LURZORUAREN BALIOAK:
101	Maroño	2,04 euro/m ²

Kalkulatutako lurzoruaren balioari merkatu erreferentziaren 0,70 koefiziente zuzentzailea baino ez zaio aplikatuko.

Aiara udalerrian ere Maroñoko urtegiaren ditxo dago, eta berorren balorazioa Aiara udalerriko lurzoruaren eta eraikuntzen balioeste txostenean –irailaren 9ko Diputatuen Kontseiluaren 711/2003 Erabakiaren bidez onetsia– egin zen banakako eran, beraz, ez da eraikuntza elementu horren beste baloraziorik egingo.

Maroñoko urtegiaren katastro balio osoaren konputuan urtegiaren ohearen lurzoruaren balioa hartu beharko da kontuan; izan ere, balio hori lortzeko, eranskinean proposatutako balioari urtegiaren ditxoaren eraikuntza balioa –lehendik baloratuta– gehitu behar zaio lehengo paragrafoan adierazi bezalaxe.

7.777

1.096/2006 ERABAKIA, abenduaren 5eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, behin betiko onartzen da Aramaioko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari lotutako hiri lurzoruaren eta ondasun higiezinaren Balioeste-txostenaren eranskina, "Urrunaga" eta "Albina" urtegien ohea balioesteko irizpideak barne.

Azaroaren 9ko 572/2006 Foru Aginduaren bitartez, behin-behineko izaeraz onartu zen Barrundiko udalerriko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren pean dauden hiri ondasun higiezinaren Lurzorua eta Eraikuntzak Balioesteko Txostena, Ullibarriko urtegiaren ohea, lehen aipatutako udalerrian dagoen zatia, balioesteko irizpideak barne.

Aipatutako xedapenaren agintze zatiaren 2. artikuluan, Barrundiko Udalarriaren berri emateko agindua ematen zen. Agindu hori 2006ko azaroaren 14an bete zen eta Barrundiko Udalarriak 2006ko azaroaren 17an jaso zuen jakinarazpena.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauak 11. artikuluan 4. paragrafoan hamabost egun ematen dizkio udalari egoki deritzona jakinaraz dezan.

tablecido en la Ponencia de Valoración para la obtención del valor de suelo y construcción, debido a la singularidad del elemento urbano a valorar, el cual no está incluido en el cuadro de equivalencias y por tanto, tal y como establece el artículo 3º del Decreto Foral número 2/1994, del Consejo de diputados de 18 de enero, que regula las Normas Técnicas de Valoración y el Cuadro-Marco de valores del suelo y de las construcciones, para determinar el valor catastral de los bienes de naturaleza urbana cuyas características especiales impidan su valoración por el método de valoración masiva, será preciso individualizar en la Ponencia de Valoración el procedimiento específico para su obtención, concretándose los inmuebles a los que dicho procedimiento será de aplicación.

Siguiendo el razonamiento expuesto, la valoración específica, en el caso del lecho del embalse de Maroño, deberá basarse en datos ajenos al mercado inmobiliario, es decir en datos obtenidos por otros procedimientos, debido a que se trata de bienes inmuebles que no acceden al mercado inmobiliario. Los datos a partir de los cuales se obtiene el valor catastral del referenciado bien inmueble provienen de expropiaciones realizadas por la propia Diputación Foral de Álava, más concretamente de expropiaciones que se realizaron para adquirir suelos en los que fue realizada una obra de la misma tipología que la que ahora se pretende valorar, es decir un embalse.

La Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, en su artículo 7, apartado 1º, dispone que, el valor catastral de los bienes inmuebles de naturaleza urbana estará integrado por el valor del suelo y de las construcciones.

VALORACIÓN CATASTRAL ESPECÍFICA DEL LECHO DEL EMBALSE DE MAROÑO

Valor del suelo.- El valor catastral del suelo se obtendrá aplicando a la totalidad de la superficie de suelo ocupado por las aguas embalsadas en el momento de máximo nivel previsto, el valor atribuido en el presente Anexo de la Ponencia de Valoración del término municipal de Ayala. El valor que se asigna es:

POLÍGONO FISCAL	EMBALSE	VALOR DEL SUELO
101	Maroño	2,04 euros/m ²

Al valor de suelo calculado sólo se le aplicará el coeficiente corrector 0,70 de referencia al mercado.

En el término municipal de Ayala, también se encuentra ubicado el dique del embalse de Maroño, cuya valoración ya se realizó como valoración singularizada en la Ponencia de Valoración de suelo y construcciones del término municipal de Ayala, aprobada por Acuerdo número 711/2003 del Consejo de Diputados, de 9 de setiembre, por lo que no se realiza nueva valoración del citado elemento constructivo.

Habrà que tener en cuenta en el cómputo del valor catastral total del embalse de Maroño, el valor del suelo del lecho del embalse que se obtiene en base al valor propuesto en este Anexo más el valor de la construcción del dique del citado embalse que se valoró en su momento, tal y como se ha especificado en el párrafo anterior.

7.777

ACUERDO 1.096/2006, del Consejo de Diputados de 5 de diciembre, que aprueba definitivamente el Anexo de la Ponencia de Valoración de suelo y construcciones sujetas al Impuesto sobre Bienes Inmuebles del término municipal de Barrundia, incluyendo los criterios valorativos del lecho del embalse de "Ullibarri".

Por Orden Foral número 572/2006, de 9 de noviembre, se aprobó con carácter provisional, el Anexo de la Ponencia de Valoración de Suelo y Construcciones de los bienes inmuebles de naturaleza urbana sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles del término municipal de Barrundia, incluyendo en la misma los criterios valorativos del lecho del embalse de Ullibarri, en la parte situada en el citado término municipal.

En el artículo 2º de la parte dispositiva de la referida normativa legal, se ordenaba su comunicación al Ayuntamiento de Barrundia, disposición que se realizó con fecha 14 de noviembre de 2006, siendo recepcionada por el Ayuntamiento de Barrundia, con fecha 17 de noviembre de 2006.

La Norma Foral 42/89, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, dispone en su artículo 11 apartado 4º, el plazo de audiencia al Ayuntamiento respectivo, cifrándolo en quince días, para que informe lo que estime oportuno.